

Miren Josune Etxaniz fakultateko ikasle ohiak irabazi du MU-MONDRAGON Euskarazko Ikasketa Amaierako Lan onenaren saria

2015/03/04

Miren Josune Etxaniz Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikasle ohiak irabazi du MU-MONDRAGON Euskarazko Ikasketa Amaierako Lan Onena lehiaketaren laugarren edizioa. Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterretako ikasle ohiak Arizmendi Ikastolan egin zuen bere Master Bukaerako Lana. 1.500 euroko saria jaso duen lanak *Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle etorri berrien pertzepzioa euskararen ikaskuntzaren inguruan* du izena eta 2013-2014 ikasturte amaieran aurkeztu zuen Etxanizek.

Lehiaketaren bigarren saria, bestetik, Goi Eskola Politeknikoko ikasle ohi batek irabazi du, Ander Elustondok. Elustondok Electra Vitoria enpresan egin zuen *Barne logistikaren hobekuntza eta muntaketa-prozesuetako lan-kargaren orekatzea, igogailuen fabrikazioan* Gradu Bukaerako Lana. Elustondok 500 euroko saria jaso du.

Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia gau egin da, martxoak 4, Eskoriatzako campusean. Publiko eta prentsaren aurrean egin den ekitaldian, parte hartu dute antolatzaileek, irabazleak eta enpresa parte hartzaileetako tutoreek.

2013-2014 ikasturtean, guztira, euskaraz idatzitako 277 Gradu Bukaerako Lan aurkeztu dira Mondragon Unibertsitatean. Lan horiek guztietatik 20k betetzen zituzten lehiaketan parte hartzeko oinarriak, besteak beste, 9tik gorako nota jaso izana aurkezpen egunean eta Mondragon Taldeko enpresaren batean eginda egotea.

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Taldeak antolatzen dute elkarlanean MU-MONDRAGON Euskarazko Ikasketa Amaierako Lan Onena lehiaketa.



Miren Josune Etxaniz.